



PRENTSA OHARRA

2016ko maiatzaren 25a

Lanbide Heziketan talentu berriztatzailea

Repsol Fundazioak FP Energia programa pilotua amaitu du. Ekimen honek berrikuntza sozialeko proiektuak laguntzen ditu, Lanbide Heziketan tituludunek edo ikasleek garatu badituzte. Programak Tknikaren (Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuaren Zentroa) eta Madrilgo Udalaren laguntza du.

Lanbide Heziketan tituludunen eta ikasleen sei taldek, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Madrilgo lau zentrotakoek, FP Energia Repsol Fundazioaren programan parte hartu dute eta gaur beren proiektuak aurkeztu dituzte, hamabi hilabeteetan zehar Fundazioaren laguntza izan ondoren.

Aurkezpena Muñatonesko jauregian egin da eta *FP Energia, Lanbide Heziketari aplikatutako berrikuntza energetikoa*, programa amaitzeko erabili da. Ekimena Repsol Fundazioak garatu du Tknika (Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntzaren Zentroa) eta Madrilgo Udalaren laguntzaz, Lanbide Heziketan berrikuntza soziala eta ekintzailtza sustatzeko.

Ekitaldian Emiliano López Atxurak, Petronorreko presidentea, Ignacio Egeak, Repsol Fundazioko presidenteordea, eta Iñaki Mujicak, Tknikako zuzendariak, parte hartu dute.

2014. urtean abian jarri zen ekimen honi esker, taldeek hamabi mila euroko laguntza ekonomikoa jaso dute proiektua garatzeko eta proiektuko beste hamar mila eurokoa lanbide heziketako zentroetarako, behar zituzten material eta instalazio guztiak eskuratzeko xedez. Gainera,

tutore adituen aholkularitza izan dute, hain zuzen ere, lanbide heziketako zentroetako sei irakasle eta hamabi tutore berrikuntza eta garapen teknologikoaren gaietan espezializatuak. Horiek guztiak Repsolen boluntarioak izan dira.

Esperientzia honetan parte hartu duten sei proiektuek hurrengoak izan dira:

- Energiarekin... "ni lasai", eraikinetan energia optimizatzeko hardware-softwarearen sistema (Madrilgo Virgen de la Paloma BHI).
- DISCAPP, mugikortasun mugatua duten pertsonentzat aparkalekuak aurkitzeko aplikazio mugikorra (Portugaleteko CIFP Repélega LHII).
- EFIROUTE, hornidura ibilbideetan eraginkortasuna eta aurrezpena (Portugaleteko Repélega LHII).
- GAIZ, edateko ur bihurtzeko sistema eramangarri eta autonomoa (Madrilgo Virgen de la Paloma BHI).
- GRAFILT, edateko ur bihurtzeko edo urari gatzak kentzeko grafeno iragazkiak (Santurtziko San Jorge LHII).
- TAPI, larrialdiko oharrarekin kontzientziarik gabeko pertsonentzat telelaguntza eskumuturrekoa (Zubietako Usurbil LHIII).

Ekimenak garatzeko, modu berean, oinarriko zeregina izan du lanbide heziketa zentro bakoitzak (Repélega LHII, Usurbil LHIII, San Jorge LHII eta La Paloma BHI) baita proiektuetan tutore bezala jardun duten irakasleek ere. Azkenekoek prozesuan zalantzak argitu dituzte.

Gainera, urtean zehar bi prestakuntza saio egin dira eta partaideek tutoreekin biltzeaz gain, enpresa kudeaketarekin zerikusia duten gaietan prestakuntza jaso dute.

Ekimen honen abiapuntua talentuarekin eta ekintzailetzarekin Repsol Fundazioaren konpromisoa da. Oinarriko hezkuntza-aukera bezala Lanbide Heziketaren aldeko apustua egiten du, produkzio sistema eta enplegarritasuna garatzeko, beraz, eremu honetan berrikuntza sendotzea beharrezkoa da, garapen teknologiko zentro bezala lanbide heziketa zentroen zereginari balioa emateaz gain.

Bideoa ikusi: <http://www.fundacionrepsol.com/es/videos/fp-energia>